

2017/18 IKASTURTEAN ZEHAR HAPPY SCHOOL PROGRAMAN PARTE HARTU DUTEN IKASLEENTZAKO LAGUNTZA DEIALDIA

OINARRIAK

1. artikulua. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua, 2017/18 ikasturtean zehar Happy School programan parte hartuko duten Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei formaziorako laguntza eskaintzea da.

2. artikulua. Parte-hartzaileak eta baldintzak.

Honako laguntza hau eskatzen duten ikasleak Aranguren Ibarrean erroldaturik egon beharko dute.

3. artikulua. Eskaerak egiteko modua eta epea.

3.1 Eskaera programan parte hartzen duen ikasleak aurkeztuko du Aranguren Ibarreko Erregistro Orokorrean (Mutiloa plaza z.g, Mutiloan).

3.2 Eskaerak aurkezteko epea 2018ko ekainaren 8an, ostiralean, amaituko da.

4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

Ikasleek eskaera-orri batekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- a) CNAI Nafarroako Hizkuntzen Zentroko asistentzia-agiria
- b) Familia-unitatearen Errenta Aitorpena.

5. artikulua. Instrukzio-organoa eta ebazpena.

Honako deialdi honetako instrukzio-organoa Aranguren Ibarreko Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Euskara Batzordea izanen da eta aurkeztutako eskaerek baldintzak betetzen dituztela begiratuko du.

6. artikulua. Finantzazioa: modalitatea eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

Finantzaketaren zenbatekoa aldagarria izanen da ikasle eskatzailearen Familia-unitatearen Errenta aitorenaren arabera. Ondorengoak dira kontuan hartu beharreko errenta-tarteak:

Per capita diru-sarrerak IPREM-eraino.....gastuaren % 75

Per capita diru-sarrerak IPREMetik IPREM+% 30era..... gastuaren % 50

Per capita diru-sarrerak IPREM+% 30 baino handiagoak.....gastuaren % 25

Eskaerak diru-laguntzarako esleitutako diru-partida gaitutako balute, kopurua proportzionalki banatuko da eskatzaileen artean. Bestalde, diru-laguntza ez da ikastaroaren kostuaren % 75 baino gehiago izanen.

7. artikulua. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta horietatik eratorritako administrazio egintzen aurka ere, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da Aranguren Ibarreko Udalarari zuzendua, errekurtitzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.